

OINATIKO ARRAZOLA ETXEKO MANUSKRITOAK

- 1.- "Errectore Jaun baten instruccinuac ezconduric vizi dan Adisquide batentzat bere eta bere Familiaren gobiernu oneraco Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme".
Eskuz idatzitako 478 orrialde (239 folio),
220 × 140 mm.
Iaruzko azalez ornitua.
- 2.- "Osaba baten instruccinuac bere Illoba Ezcondu eta Necazari baten-
tzat bere eta bere Familiaren gobiernu oneraco Jaungoicoaren Legue
santubagaz conforme".
Eskuz idatzitako 440 orrialde (220 folio),
220 × 140 mm.,
Iaruzko azalez ornitua.

Liburu hauek Oinatiko Olabarrieta hauzoko Arrazola etxean aurkitzen diren bi manuskrito ditugu. Orain dela berrogei ta hamar bat urte gorago aipatutako etxe horretan Aita J.A. Lizarralde kausitu zituen. Gerra aurretik Leonardo Zabaleta apaizaren eskuetara iritsi ziren; harrez gero, euskal idazle eta ikertzaile batzuk idaztiok ezagutu ahal izan dute. Gerratea baino lehentxoago Aita Olabide zenak — Arantzazun bizi izan zenean — erabili zituela badakigu. Gerra ostean esku-izkribu horietako bat Donostiaratu egin zitzaigun, Zabaletak Fausto Arozenari utzi bait zion. Erretorea-rena ibili zen Donostia aldetik, eta Mitxelenak orduan aztertuko zuen seguraski, Errenderiakoak bere "Fonética Histórica Vasca" liburuan, Erretorea-rena sarritan aipatu arren, Osabarenaren berririk ez bait digu ematen. Zabaleta hil ondoren, manuskrietoen jabeak — Luis Arrazola jaunak — biak bereganatu egin zituen, eta beste behin edo bakarrik atera omen ziren haren etxetik. Aita Villasantek ere bat eskuratu zuen, bainan, berak esan zigunez, ia berehala itzuli behar izan zion Arrazola jaunari.

Ihaz Oinatiko Herri Liburutegiko batzordeak Arrazola jaunari eskabide bat egin zion, manuskriotoen fotokopia batzuk ateratzeko baimena eman zezan. Baimena lortu ondoren, Lankide Aurrezkiak dohan atera zituen fotokopiak eta batzordeak Euskaltzaindiko eta Arantzazuko liburutegietara bidali zituen fotokopiatutako liburuok, beste bi Oinatiko Herri Liburutegian gordeaz.

Oraindik ezin da idazti hauei buruz berri zehatzik eman, ez bait dakarte egilearen izenik, non idatzi edo noiz burutu zirenik. Dena den, gehienbat Oinatiko euskalkia darabilenez gero, egilea oinatarra izanen zen edo Oinatín bizi izan zena behintzat. Eliza gizona bezala agertzen da beti eta ikasketak Oinatín egin zituela aitortzen du. Beraz, apaiz edo praileren bat dugu egile ezezagunori. Bestalde Frantziako Iraultza gertatu berri den gauza bat legez aipatzen da; hortik XVIII-garren mendearen ondarrean edo XIX-garrenaren hasieran idatzi zirela pentsa dezakegu. Halere, biak batera osatutakoak ala bata bestea baino zaharragoa ote den aratu behar-ko litzateke, liburuetan zehar azaltzen diren beste xehetasun batzuk horrelakorik adierazten dute eta.

Gai berdintsuz osaturik daude liburu biak. Gehienetan, ordea, batak dakarrena ez dator hitzez hitz bestean. Hildo nagusi bati jarraituz, tajukera desberdin xamarra dute; idazkeraz ere bata bestea baino txukunago moldatuta dagoela esanen genuke. Gaia, jakina, erlijioari buruzkoa dugu: "Religinua", "Martirio Santuba", "Guizonaren azquen Fina", "Animaco Etsaiac", "Diabruba", "Araguia", "Orazinua" eta antzeko gaiak darabilte liburu biak. Baina hainbeste orrialdeetatik beste zerbait ere atera daiteke: garai hartako ohiturak, sineskeriak, pentsamoldeak, mundu-ikuskerak eta abar. Hizkuntza aldetik ere esku-izkribuok garrantzi haundikoak direla esan behar, Oinati inguruko euskalkian tajutu diren zaharrenak eta luzeenak direlako. Beraz, Arrazolako manuskrito hauetan euskal teologo, etnologo, hizkuntzalari, soziologo eta historiagileek harrobi bikaina dutela uste dugu.

J. E.

J. Elorza